

**Lasarte-Orian Euskara
Biziberritzeko Plan estrategikoa
2008-2012.**

*Lasarte-Oriako Udala
2008ko maiatza*

Aurkibidea

1.- Sarrera

2.- Ezaugarri nagusiak

3.- Helburu estrategikoak, esparruak eta ekintzak

3.1.- Euskara ondorengoetaratzea (1)

3.1.1.- Irakaskuntza (1a)

3.1.2.- Helduen euskalduntzea eta alfabetatzea (1b)

3.1.3.- Familia (1c)

3.2.- Euskara erabiltzea (2)

3.2.1.- Administrazioa (2a)

3.2.2.- Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak (2c)

3.2.3.- Enpresa-mundua (2d)

3.2.4.- Aisia (2e)

3.2.5.- Kirola (2f)

3.3.- Euskara elikatzea (3)

3.3.1.- Corpusaren plangintza eta euskararen kalitatea (3a)

3.3.2.- Liburugintza (3c)

3.3.3.- Publizitatea (3f)

3.3.4.- Kulturagintza (3g)

3.3.5.- Hedabideak (3h)

1.- Sarrera

Lasarte-Oriako Udaltzarrak 2003ko maiatzaren 19ko osoko bilkuran onetsi zuen *Lasarte-Orian Euskara Biziberritzeko Plana*. Bi hilabete lehenago, gizarteko hainbat eragileri behin-behineko proposamena aurkeztu zitzairen eta, egindako ekarpenak aztertu ondoren, onetsitako plana osatu zen.

2003tik 2007rako Udalaren hizkuntza-politika plan horretan jasotakoa gauzatu hezuramitu da, neurri batean behintzat. Plan horrek eman zuenaren berri ezagutzeko, 2007ko maiatzaren 14an Euskarako Batzordean *Lasarte-Orian Euskara Biziberritzeko 2003-2006. Ebaluazioa* txostena aurkeztu zen eta onetsi (Alkatearen 1338/2007 Dekretuaren bidez).

Esku artean dugun txosten honek “zirriborroa” izena zuen beste dokumentu bat izan du abiaburu. Dokumentu hari egin zaizkion ekarpenak aztertu ondoren, *Lasarte-Orian Euskara Biziberritzeko Plana 2008-2012* txostena osatu eta onetsi da.

2.- Ezaugarri nagusiak

2.1.- Epea

Lasarte-Orian Euskara Biziberritzeko Plan hau 5 urterako egin den plan bat da; 2008-2012 epealdirako, hain zuzen ere.

2.2.- Helburuak

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea; Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.

Eusko Legebiltzarrak 1999ko abenduaren 10ean onetsitako testuan, hitzez hitz, honela daude jasoak helburu nagusia eta helburu estrategikoak:

2.2.1.- Helburu nagusia

“Funtzio soziolinguistikoetan aurrerapauso handiak eman diren arren, euskararen egoera beste hizkuntza gutxituen eta gutxiagora etorri direnen antzekoa da oraindik: hainbat gizarte-esparrutan oso ahula da duen presentzia; gehien aurreratu duen eremuetan ere, egoera ez da inola ere erdaren parekoa. Hala ere, gogoan dugu hizkuntzen berdintasunaren diskurtsoak antzu bihur lezakeela hizkuntza gutxituen aldeko ahalegina: egunerokotasuna irabazita ez dagoenean, arriskutsua izan daiteke lehentasun garbirik finkatu gabe aldi berean eta esparru guztietara hedatu nahi izatea. Horrexegatik, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean,

euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea. Hizkuntza-komunitatearen eskubide kolektiboa ukatu gabe, herritar bakoitzaren hizkuntza-eskubideak guztiz errespetatuak izan daitezzen lortzeko urratsak areagotzea, jakinik botere publikoek eskubide hauek babesten dituztela; euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak eskaintzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea, horrela bakarrik berrmatuko baita euskararen biziraupena eta normalizazioa”.

2.2.2.- Helburu estrategikoak

A) Euskara ondorengoetaratzea

“Euskara, belaunez belaun eta etenik gabe, ondorengoetaratzea. Euskararen geroratzea, familiaren, eskolaren eta helduen euskalduntze-alfabetatzearen bidez eta hizkuntza bera osatuz, aberastuz eta hobetuz lortzen da, batez ere.”

B) Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza

“Erabiliz zorrozten den tresna da hizkuntza. Erabiltzen ez bada, herdoildu ez ezik, kamustu ere egiten baita. Horregatik zaindu behar dira ondo familiaren eta eskolaren luzapen eta ingurune diren jardunbide guztiak: kirola, aisia, erlijioa, gune euskaldunenak, enpresa-mundua, administrazioa eta abar. Datozen hamar urteotako erronkarik nagusiena belaunaldi berrietako euskaldunentzat euskara heldu-aroko erabilera-eremu berezi eta garrantzizkoetarako atsegin eta gaztelania bezain baliozko egitean datza; esaterako, enpresa-mundurako, aisiarako, kirolerako eta komunikabideetako produktuen kontsumorako, bai eta funtzio sinboliko eta afektiboetarako ere, hala nola, familiako harremanetarako, lagunarterako, gizarteko bizitarako, kulturarako, eta norberaren burua euskal hiritar jotzeko. Horretarako, euskarazko zerbitzuen «eskaintza» eskolatik harantzago eraman eta beste erabilera-eremu garrantzizkoetara zabaldu behar da. Euskararen aldeko auzogintza, zerbitzugintza da, hurrengo hamar urteotan, bai herri-agintek bai euskararen aldeko taldeek egin beharreko ahalegin garrantzitsuena: euskarak bizi-indar osoa edo ohargarria duen bizi-inguru hurbiletan osasun-, hezkuntza-, kirol-, aisia- eta abarreko zerbitzuak euskaraz edo elebidun eskaintzea.”

D) Euskararen elikadura

“Hizkuntza eroso eta erraz hitz egin eta erabiliko bada, elikatu egin behar da, liburu, irrati, aldizkari, egunkari, telebista eta abarren bidez. Euskara, bigarren hizkuntza gisa, eskolan ikasi duen euskaldun berriari dituen hizkuntza-ezagupenak sendotzen, euskal kulturaren aberastasunaz jabetzen eta bere harreman-sare euskalduna zabaltzen lagundu behar zaio.”

2.3.- Irizpide nagusiak

2.3.1.- Plan integrala.

Lasarte-Orian, orain arte ere, hainbat arlotan garatu dira euskara normalizatzeko lanak, eta, arlo horietako batzuetan, egoera nabarmen hobetu da azken urteotan (irakaskuntzan, adibidez). Beste arlo batzuetan (industrian, esate baterako), oso gutxi aurreratu da.

Aurreko plan estrategikoarekin, lortu genuen esparruz gairik plan bat izatea, eta ikusi dugu eraginkortasuna handitzen lagundu digula.

2.3.2.- Adostasunean oinarritua.

Osatu behar dugun planak oinarritzko gizarte-adostasunak lortu behar ditu hizkuntza-politikaren inguruan. Herritar guztiak bildu behar dira oinarritzko eta gutxieneko neurri batzuen baitan.

Esparru bakoitzak bere berezitasunak, bere lehentasunak eta bere erritmoak izango baldin baditu ere, irizpide horri jarraituz, hitzarmenak sinatu asmo ditugu, bai euskara normalizatzeko eragile diren erakundeekin (Ttakun Kultur Elkarte, lau ikastetxeak), bai beren buruak euskalduntzeko aurrerapausoak eman nahi dituzten erakundeekin ere (eliza, enpresak, dendak...).

Hurrengo orriko taulan biltzen dira plan estrategiko hau garatzeko udalerrian bertan lankide diren edo izan daitezkeen agenteak eta beste eragile interesgarri batzuk.

2.3.3.- Planak udal osoarena eta gizarte osoarena izan behar du.

Plana euskarako teknikariek egindako zirriborro batetik abiatzen da, baina plana ezin da, besterik gabe, euskarako teknikariek edota euskalgintzako agenteek bakarrik moldatua izan. Hasteko, udaletik bertatik hasita, garbi izan behar da EBPN osatzea eta garatzea udaleko departamentu guztien ardura dela. Era berean, gizarteari dagokionez ere, esparru guztietako gizarte-eragileak inplikatu beharko dira plana osatzeko eta garatzeko lan horretan.

Berez, planaren osatze-aldian euskalgintzako eta esparru bakoitzeko gizarte-eragile nagusiak hartuko dira kontuan, baina gogoan izan behar dugu, horretaz gain, plana praktikan gauzatzeko, herriko entitate bakoitzaren onarpena eta konpromisoa jaso beharko dela eta horrek entitate horiekin zuzeneko harremanak bideratzea eskatuko duela.

2.3.4.- Herriz gaindiko ikuspegia.

Hainbat arlotan lan egiteko, herri-maila motz gelditzen da. Beste batzuetan, inguruko herrietan behin eta berriz lan bera egiten da emaitza bera lortzeko, eraginkortasuna guztiz alde batetara utziz. Horregatik, oso positiboa ikusten da eskualde-mailan lan egitea. Horren lekuko dugu Buruntzaldeko “Kirola Euskaraz” programa, esate baterako, edo “Euskarako egitasmoak elkarlanean emateko sinatutako hitzarmena” edo “Buruntzaldeko enpresatan euskara gehiago erabiltzeko egitasmoak elkarlanean emateko” ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuekin sinatutakoa.

2.3.5.- Aurrea hartzeko politika: ekimen edo egitasmo berriak bereziki zaintzea.

Gizarteko beste arloetan bezala, hizkuntzaren normalkuntzan ere guztiz inportantea da edozein egitasmo edo ekimen berri sortzean hizkuntzazko irizpideak aintzat hartzea. Denda bat irekitzean, udal-zerbitzu berri baterako enpresa berri bat kontratatzean... kontuan hartu beharreko irizpideak finkatzeak eta horiek betetzeko arreta berezia jartzeak berekin ekar lezake kostuak asko murriztea eta emaitzak nabarmen hobetzea. Horren adibide da “*Buruntzaldeko udalen kontratu administratiboetarako hizkuntzazko betebeharrak*” proposamena, Udalak berak kontratatzen dituen zerbitzuetako hizkuntza-jarduna zerbitzua bera esleitzen denerako erabakita egon dadin.

Esparrua	Esparruan eragiteko udalerriko agenteak	Beste eragile interesgarri batzuk
1a. Irakaskuntza	<ul style="list-style-type: none"> – Haur-eskolak – Lehen Hezkuntzako ikastetxeak – Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak – Akademiak – Tailer okupazionalak – Helduen Heziketa Iraunkorreko ikastetxea – Udaleko sailak 	<ul style="list-style-type: none"> • Berritzegunea (Hezkuntza Saila) • Buruntzaldeko udalak • Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
1b. Helduen euskalduntzea eta alfabetatzea	<ul style="list-style-type: none"> – Udalaren euskaltegia – Muntteri-AEK euskaltegia – Ttakun Kultur Elkartea 	<ul style="list-style-type: none"> • Buruntzaldeko udalak • HABE
1.c. Familia	<ul style="list-style-type: none"> – Osasun-zentroa – Haur-eskolak – Lehen Hezkuntzako ikastetxeak – Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak – Udaleko sailak 	<ul style="list-style-type: none"> • Berritzegunea (Hezkuntza saila) • Buruntzaldeko udalak • Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza • HABE • Soziolinguistikako Klusterra
2.a. Administrazioa	<ul style="list-style-type: none"> – Udala 	<ul style="list-style-type: none"> • Buruntzaldeko udalak • Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza • HAEE/IVAP
2.c. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak		<ul style="list-style-type: none"> • Buruntzaldeko udalak
2.d. Enpresa-mundua	<ul style="list-style-type: none"> – Enpresak – Sindikatuak – Ikastetxeak 	<ul style="list-style-type: none"> • Buruntzaldeko udalak • Hizkuntzako aholkularitzako enpresak • Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
2.e. Aisia	<ul style="list-style-type: none"> – Elkartek – Ikastetxeak – Udaleko sailak – Ttakun Kultur Elkartea 	<ul style="list-style-type: none"> • Buruntzaldeko udalak
2.f. Kirola	<ul style="list-style-type: none"> – Elkartek – Ikastetxeak – Udalaren kiroldegia – Ttakun Kultur Elkartea 	<ul style="list-style-type: none"> • Buruntzaldeko udalak • Gipuzkoako Foru Aldundia
2.g. Erlijioa	<ul style="list-style-type: none"> – Eliza 	
3.a. Corpus plangintza eta euskararen kalitatea	<ul style="list-style-type: none"> – Kulturako departamentua 	<ul style="list-style-type: none"> • Euskaltzaindia
3.g. Kulturagintza	<ul style="list-style-type: none"> – Elkartek – Ttakun Kultur Elkartea 	

	– Udal sailak	
3.h. Hedabideak	– Txintxarri aldizkaria – Diario Vasco eta Noticias de Gipuzkoa egunkariak – Radio Bahía eta Radio Andatza irratiak	
3.i. Ikerketa eta garapena		<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza • Gipuzkoako Foru Aldundia • EUDEL • Soziolinguistikako Klusterra

3.- Helburu estrategikoak, esparruak eta ekintzak

Ebaluazio hau egiteko, planak berak zuen egitura bera erabili dugu. Planaren hezurdura hiru helburu estrategikok osatzen dute, eta helburu bakoitzaren barruan hainbat esparru daude. EBPNren hiru helburu estrategikoak eta esparruak hauek dira:

- 1) **Euskara belaunez belaun eta etenik gabe ondorengoetaratzea.** Helburu estrategiko horrek hiru esparru ditu bere baitan:
 - Familia
 - Irakaskuntza
 - Helduen euskalduntzea

- 2) **Euskararen erabilera** segurtatzea. Helburu estrategiko horrek, berriz, sei esparru ditu bere baitan:
 - Administrazioa
 - Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak
 - Enpresa-arloa
 - Aisialdia
 - Kirola
 - Erlijioa

- 3) **Hizkuntza elikatzea**, eroso eta erraz hitz egiteko eta erabiltzeko. Helburu estrategiko horrek, berriz, bost esparru ditu bere baitan:
 - Corpusaren plangintza eta euskararen kalitatea
 - Liburugintza
 - Publizitatea
 - Kulturgintza
 - Hedabideak
 - Ikerketa eta garapena

Hamalau esparru horietako bakoitzaren barruan, neurri bat edo hainbat jaso dira, eta, neurri bakoitzaren barruan, berriz, hainbat ekintza. Ekintza horien guztien baturak osatzen du Lasarte-Orian Euskara Biziberritzeko Plana.

3.1.- Euskara ondorengoetaratzea

Helburu estrategiko hau honela dago idatzita:

“Euskara, belaunez belaun eta etenik gabe, ondorengoetaratzea. Euskararen geroratzea, familiaren, eskolaren eta helduen euskalduntze-alfabetatzearen bidez eta hizkuntza bera osatuz, aberastuz eta hobetuz lortzen da, batez ere.”

Bistakoa da helburu estrategiko hau dela euskara biziberritzeko saioretan gehien landu dena. Ez alferrik, helburu hau osatzen duten hiru esparruak (familia, eskola eta euskaltegia) dira hiztun berriak sortzeko edota sortutakoak osatzeko bideak.

Ez da erraza helburu hau osatzen duten esparruen hizkuntzazko egoera zehatza eta aldi berean orokorra izatea eta eguneratua izatea. Edozein kasutan, gure eskuetan dauden informazio-iturrien arabera, adierazle hauek xehatu ditugu egoeraren argazki labur eta zenbaki bidezko bat emateko:

Familia: etxeko hizkuntza 2001eko erroldan (%)

Adina	Euskara	Biak	Gaztelania	Besteren bat
5-9	21	18	60	1
10-14	18	14	67	1
15-19	16	10	73	1
20-24	12	10	77	1

Irakaskuntza: ikastereduak 2007-08 ikasturtean (%)

Zikloak	A	B	D
Haur-eskola	0	0	100
HH-LH	0	17	83
DBH	3	24	74
DBHO	16	0	84

Helduen euskalduntzea: 2007-08

Maila	Ikasleak
1. maila	116
2. maila	21
3. maila	53
Guztira	190

Zenbaki horiek xehetasun eta ñabardura asko behar dituzte egoera zehatza ezagutzeko. Adibidez, familiaren esparruari dagokionez, zenbakiak adierazten dute gero eta haur gehiagok dutela euskara (bakarrik edo gaztelaniarekin batera) beren lehen hizkuntza (3 urtera bitartean jasotzen duten hizkuntza); are gehiago, taulak adierazten digu, etxeko hizkuntzaren kasuan ere, belaunaldi berrien etxeko hizkuntza gero eta gehiago dela euskara (ere). Hala ere, guraso euskaldunen tipologia linguistikoak nola aldatzen ari diren ikusita, etxean euskarak duen egoera horren sendotasunak askotariko tipologia izango dituela ere intui daiteke.

Irakaskuntzaren kasuan ere, D ereduaren nagusitasuna ia erabatekoa bada ere, denok dakigu D ereduan ikasten aritzea eta hizkuntzazko gaitasun jakin bat izatea ez direla pareko gauzak. Horrela, beraz, adierazle bezala erabil badaitezke ere, lerro hauen neurrietatik kanpo geratzen diren balorazio kualitatiboak ere erantsi behar zaizkie, egoeraren diagnosi osatua edukitzeko.

3.1.1.- Irakaskuntza (1a)

ESPARRUAREN EBALUAZIOA				
<p>– Irakaskuntzaren esparruan egin beharrekoa definitu samarra dago eta parte hartzen duten agenteen koordinazioa ere bideratuta dago. Horretaz gain, lan egiteko modua sistematizatuta dago (esparruko plana) eta bitartekoak jarrita daude. Maila horretan, eginkizun dagoen puntu nagusia Bigarren Hezkuntzaren Ondorengoan dago, bereziki Heziketa Zikloetan (horregatik Buruntzaldeko DBHOko programa).</p> <p>– Lau ikastetxeek onetsita daukate hizkuntza normalizatzeko planak, baina horiek biziberritzen dago lanik garrantzitsuena. Biziberritze horrek, ordea, ez du formala soilik izan behar, eta hausnarketa orokorrago bat ere eskatzen du; adibidez, puntu hauetan: gela barruan hizkuntzak erakusteko modua, ahozketasuna nola landu, familia bidezko transmisioan nola lan egin... Haur-eskola publikoa euskarazko ereduan sortu eta abiatu da. Hala ere, momentuz, udalerrian euskara berreskuratzeko egiten diren lanekin koordinatu gabe dago, eta koordinazio horretan sartzea komeniko litzateke. Besteak beste, hizkuntza normalizatzeko plan bat egitea ere komenigarria izango litzateke. Haur-eskola pribatuak ere sortzeaz daudela dirudi.</p> <p>– Lanbideko Hastapenen Tailerrek (Udalaren eskumenekoa eta Buruntzalde mailan koordinatua) eta Helduen Heziketa Iraunkorreko ikastetxeak (EPA) oraindik hizkuntza-planik egin gabe dihardute.</p> <p>– 2003-06 planean aurreikusitako ia ekintza guztiak egin dira, eta egin gabe geratu direnak, kasurik gehienetan, interesatuekin ez egitea edo beste modu batera bideratzea adostu ondoren utzi dira.</p>				
ESPARRUAREN PLANA				
Neurriak	1.a.01	<i>Udaleko sailek eskaintzen dituzten irakaskuntzako zerbitzuak (haur-eskola, tailer okupazionalak...) laguntzea, ikasleak euskara-hiztun ahalik eta egokienak izan daitezen lortzeko.</i>		
	1.a.02	<i>Udaleko sailek ikastetxeei eskola-orduetan egiteko eskaintzen dizkieten programak euskaraz eskaintzea (igerian ikasteko, ingurumenean hezteko...).</i>		
	1.a.03	<i>Esparrua osatzen duten udalerriko agenteekin hizkuntza normalizatzeko planak hitzartzea edo badituztenen kasuan planak aberasteko egitarauak hitzartzea, ikasle euskara-hiztun ahalik eta egokienak lor ditzaten laguntzeko.</i>		
	1.a.04	<i>Programa zehatzak antolatzea edo laguntzea, ikasleak euskara-hiztun ahalik eta egokienak izan daitezen laguntzeko.</i>		
	1.a.05	<i>Esparruko agenteek koordinatuta lan egitea.</i>		
Aurreikusitako ekintzak			Lehentasuna	Hasierako urtea
1.a.01/01	Udalaren haur-eskolarekin haurren eta gurasoen hizkuntza-ohiturak indartzeko beharrak aztertzea.		Handia	2009
1.a.01/02	Udalaren lanbideko hastapenen tailerrek euskaraz emateko aukerak aztertzea.		Ertaina	2010
1.a.01/03	Udalaren kaleko hezitzaileekin beren lana euskaraz egiteko aukerak aztertzea.		Ertaina	2011
1.a.02/01	Zerbitzu Sozialen Batzordeak eskola-orduetarako antolatzen dituen programak euskaraz eskaintzea.		Handia	2009
1.a.02/02	Ingurumena, Merkataritza, Kontsumoa eta Sanitatea Batzordeak eskola-orduetarako antolatzen dituen programak euskaraz eskaintzea.		Handia	2009
1.a.02/03	Kultura eta Hezkuntza Batzordeak eskola-orduetarako antolatzen dituen programak euskaraz eskaintzea.		Handia	2009
1.a.02/04	Gazteak eta Festak Batzordeak eskola-orduetarako antolatzen dituen programak euskaraz eskaintzea.		Handia	2009
1.a.02/05	Kiroletako Batzordeak eskola-orduetarako antolatzen dituen programak euskaraz eskaintzea.		Handia	2009
1.a.03/01	<i>Landaberi-Garaikoetxea</i> ikastolarekin hizkuntza normalizatzeko plana aberasteko egitarauak hitzartzea.		Erabatekoa	2008

1.a.03/02	Sasoeta-Zumaburu ikastetxearekin hizkuntza normalizatzeko plana aberasteko egitarauak hitzartzea.	Erabatekoa	2008
1.a.03/03	Landaberri BHI ikastolarekin hizkuntza normalizatzeko plana aberasteko egitarauak hitzartzea.	Erabatekoa	2008
1.a.03/04	Lasarte-Usurbil BHI institutuarekin hizkuntza normalizatzeko plana aberasteko egitarauak hitzartzea.	Erabatekoa	2008
1.a.03/05	Helduen Heziketa Iraunkorreko (EPA) ikastetxearekin hizkuntza normalizatzeko plan bat adostea.	Ertaina	2010
1.a.03/06	Haur-eskola pribatuekin (<i>Pinpilinpauxa, Kolorin...</i>) harremanetan jartzea eta hizkuntza normalizatzeko plan bat adostea.	Handia	2009
1.a.03/07	Eskolako lanetan laguntzeko akademiekin (<i>Mekaleku, Zitek...</i>) hizkuntza normalizatzeko plan bat adostea.	Ertaina	2009
1.a.04/01	“Jolas eta solas” programa diruz laguntzea.	Handia	2008
1.a.04/02	Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako aldizkariak (<i>Irrintzi, Esazu</i>) diruz laguntzea.	Handia	2008
1.a.04/03	Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako <i>Irakutrezin</i> aldizkaria diruz laguntzea.	Handia	2008
1.a.04/04	“Ahozkotasuna eta bertsolaritza” programa diruz laguntzea.	Handia	2008
1.a.04/05	“Lagunarteko hizkerarekin jolasean” programa diruz laguntzea.	Handia	2008
1.a.04/06	Buruntzaldeko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondorengoan euskararen egoera hobetzeko programa.	Handia	2008
1.a.04/07	“Euskara Zine Aretoetara” programa diruz laguntzea.	Ertaina	2008
1.a.04/08	“Pertsonaia ezagunen bisitak” programa diruz laguntzea.	Ertaina	2008
1.a.04/09	Klase partikularretako begiraleen poltsa osatzeko programa laguntzea.	Ertaina	2008
1.a.04/10	Unibertsitateen udako ikastaro euskarazkoetara doazen herritarrak diruz laguntzea.	Ertaina	2008
1.a.04/11	Etorkinei, herrira iritsi ahala, herrian euskalduntzeko dauden baliabide guztien eskaintza egitea (bai nagusiei, bai haurrei). Institutuak informatzea dauden akademietaz eta matrikulen prezioetaz.	Ertaina	2009
1.a.04/12	Etorkinak hizkuntza aldetik integratzeko beharrak eta aukerak aztertzea.	Ertaina	2009
1.a.04/13	DBHko 1. zikloko ikasleek jolas garaietan euskaraz jolasteko ohitura har dezaten programa diruz laguntzea	Handia	2009
1.a.05/01	Ikastetxeekin lana modu koordinatuan egitea GUNEAREN bidez.	Erabatekoa	2008
1.a.05/02	Berritzegunearekin batera eskualdeko HNPAk koordinatzea.	Handia	2008

3.1.2.- Euskalduntze-alfabetatzea (1b)

ESPARRUAREN EBALUAZIOA				
Esparruan eragiteko plana definitu samarra dago. Ohiko ikasleen kopuruek gora egin dute plangintzaldiko lau urteetan (nahiz eta 2006-07 ikasturtean beherakada nabarmena izan duen: 145). Beka bidezko laguntzek nahiko ongi funtzionatzen dute. Euskaltegien barruan metodologia komunikatiboa erabiltzen da, eta euskaltegitik kanporako harreman-sareak gehitzeko Askatu Mingaina! programa ongi antolatuta dago. Horretaz gain, xede-talde berezientzako bi ikastaro ere definitu dira eta bat abian ere jarri da. Metodologikoki, ikasleen prozesua eta euskaraz aritzeko harreman-sare errealek gehiago lotzea izan daiteke hurrengo urratsa. Ikasleak euskaltegiratzeko saiakera berriak egin behar dira (talde berezituak, gurasoak...).Euskara ikasteko autoikaskuntzako sistemei (nahiz eta ezaugarri desberdinekoak izan daitezkeen) bide ematea komeni da, dagoen eskaerari egokiago erantzuteko.				
ESPARRUAREN PLANA				
Neurriak	1.b.01	<i>Udalaren Euskaltegiko zerbitzua hobetzen ahalegintzea.</i>		
	1.b.02	<i>Programa zehatzak antolatzea edo laguntzea, ikasleak euskara-hiztun ahalik eta egokienak izan daitezen laguntzeko.</i>		
	1.b.03	<i>Esparruko agenteek koordinatuta lan egitea.</i>		
Aurreikusitako ekintzak			Lehetasuna	Hasierako urtea
1.b.01/01	Udalaren Euskaltegiko lokal berriak egokitzea.		Erabatekoa	2008
1.b.01/02	Herritarren egungo beharretara hobeto moldatzen diren moduluak prestatzea eta eskaintzea.		Handia	2008
1.b.01/03	Autoikaskuntzako zerbitzua birdefinitzea eta eskaintzea.		Handia	2008
1.b.01/04	Euskaltegiko irakasleen prestakuntza hobetzea, batez ere teknologia berrietan eta didaktikan trebatuz.		Handia	2009
1.b.01/05	Publizitate eraginkorraren bidez Euskaltegiaren eskaintza ezagutzera ematea.		Handia	2008
1.b.02/01	Herritarrak euskara ikastearen garrantziaz sentiberatzeko kanpainak egitea.		Erabatekoa	2008
1.b.02/02	Euskara ikasten ari diren herritarrei diru-laguntzak eskaintzea.		Erabatekoa	2008
1.b.02/03	Euskara ikasten duten herritarrei diru-laguntzak emateko baldintzak eta prozedurak berraztertzea.		Handia	2008
1.b.02/04	Euskalduntzen ari diren ikasleek herriko ohiko euskal hiztunekin mintzapraktika egiteko <i>Solaskide Solasbide</i> programa laguntzea.		Erabatekoa	2008
1.b.02/05	Ikasleen ikasprozesua hizkuntza-ohiturak aldatzeko metodologiarekin uztartzea.		Erabatekoa	2009
1.b.02/06	Etorkinentzako euskalduntze programak antolatzea, euskalduntzeak eskatzen dituen programen koordinazioa eginez (euskaltegiekin ikastaro laburrak, euskaltegiatiko eskaintza, Solaskide programak, parte-hartze informaleko programak...)		Ertaina	2009
1.b.03/01	Udalaren Euskaltegiak Gipuzkoako zuzendarien batzordearekin koordinatuta lan egitea, batez ere publizitatearen, pedagogiaren eta prestakuntzaren arloan.		Handia	2008
1.b.03/02	Koordinatzeko organoa osatzea.		Handia	2008

3.1.3.- Familia bidezko jarraipena (1c)

ESPARRUAREN EBALUAZIOA				
Esparruko plana osatzen ari gara. Gaia Buruntzalde mailan lantzen hasi ginen, baina lortu dugu beste administrazio batzuek, Jaurlaritzak bereziki (HPSren, HABEren eta Hezkuntza Sailaren bidez) gaian arreta gehiago jartzea eta ikerketa-ekintzako proiektu batean abiatzea. Horretaz gain, eskualdeko ikastetxe gehienetan, esparru hau planifikatu beharraz hausnartu dute eta hasita daude bakoitza bere plana prestatzen eta gauzatzen. Osasun-zentroetako egitasmoa ere abiatuta dago (erditzeko ikastaroetan hizkuntzaren gaia txertatuz bereziki), baina oraindik ez da sistematizatzea lortu. Edozein kasutan, gabeziak gabezia, ekintza solteetatik harago, plan hori gauzatzea da esparru honi taxuz heltzeko puntu nagusia.				
ESPARRUAREN PLANA				
Neurriak	1.c.01	<i>Udaleko sailek gurasoei eskaintzen dizkieten programak (hitzaldiak, ikastaroak...) euskaraz ere eskaintzea.</i>		
	1.c.02	<i>Programa zehatzak antolatzea edo laguntzea, familia bidez euskara gehiago eta hobeto transmiti dadin.</i>		
	1.c.03	<i>Esparruko agenteek koordinatuta lan egitea.</i>		
Aurreikusitako ekintzak			Lehentasuna	Hasierako urtea
1.c.01/01	Ingurumena, Merkataritza, Kontsumoa eta Sanitatea Batzordeak gurasoei eskaintzen dizkien hitzaldi eta ikastaroak euskaraz ere eskaintzea.		Handia	2009
1.c.02/01	Hurtzaindegietan eta ikastetxeetako 2 urtekoen geletan gurasoen hizkuntzako gaitasunari eta etxeko hizkuntzen erabilerari buruzko informazioa sistematikoki jasotzea ikasturte-hasiera oro, familia bakoitzari plan/eskaintza berezitua helarazteko.		Handia	2008
1.c.02/02	Gurasoek hizkuntzako ohiturak nola aldatzen dituzten ezagutzeko ikerketak egitea.		Handia	2008
1.c.02/03	Gurasoak euskararen transmisioaz sentiberatzeko hitzaldiak laguntzea.		Ertaina	2008
1.c.02/04	Gurasoak euskararen transmisioaz sentiberatzeko materiala laguntzea.		Ertaina	2008
1.c.02/05	Haur jaio berrien gurasoak sentiberatzeko kanpaina egitea.		Ertaina	2008
1.c.02/06	Gurasoentzako kantu, jolas eta ipuinen ikastaroak laguntzea.		Ertaina	2008
1.c.02/07	Gurasoen arteko mintzapraktikako egitasmoak laguntzea.		Ertaina	2009
1.c.02/08	Berriaz gurasoentzat prestatutako euskarako eskolak laguntzea.		Ertaina	2009
1.c.02/09	Euskara ikasi nahi duten gurasoak diruz laguntzea.		Handia	2008
1.c.02/10	Euskaraz dakiten haur-zaintzaileen zerrenda osatzea eta gurasoen eskura ipintzea.		Ertaina	2008
1.c.03/01	Sasoeta-Zumaburu ikastetxeak bere hizkuntza normalizatzeko planean euskararen familia bidezko transmisioa indartzeko egitarauak txerta ditzan laguntzea.		Handia	2008
1.c.03/02	Landaberri ikastolak bere hizkuntza normalizatzeko planean euskararen familia bidezko transmisioa indartzeko egitarauak txerta ditzan laguntzea.		Handia	2008

1.c.03/03	Udalaren haur-eskolarekin lankidetzan aritzea, gurasoak euskararen transmisioaz sentiberatzeko, eta euskarazko gaitasuna eta erabilera hobetzeko programak laguntzea.	Handia	2009
1.c.03/04	Udalarenak ez diren haur-eskolekin lankidetzan aritzea, gurasoak euskararen transmisioaz sentiberatzeko, eta euskarazko gaitasuna eta erabilera hobetzeko programak laguntzea.	Handia	2010
1.c.03/05	Osasun-zentroarekin hitzarmen bat sinatzea, gurasoei eskaintzen dizkien erditzeko ikastaroetan euskararen transmisioaz informatzeko programak egin ditzan.	Handia	2010
1.c.03/06	Plan pilotua. Buruntzaldeko udal guztiek Eusko Jaurlaritzako HPSrekin batera euskara familia bidez transmititzeko abian jarritako programa pilotuarekin jarraitzea.	Erabatekoa	2008

3.2.- Euskara erabiltzea

3.2.1.- Administrazioa (2a)

ESPARRUAREN EBALUAZIOA		
<p>Bigarren plangintzaldia amaitu eta ebaluatu dugu. Esparruan eragiteko sistematika prestatu dugu, eta planaren oinarriak finkatuta daude. III. plangintzaldia ere diseinatuta dago. Plan berriaren oinarriak aurrekoarenak berberak dira. Hala ere, aurrerapausoak eman nahi dira bi zentzutan: ahozko jarduna indartzeko ahaleginak departamentu gehiagotara zabaltzea eta kanpoko zerbitzuak kontratatuzko hizkuntzazko irizpideak onartzea eta aplikatzea.</p> <p>Beste plano bateko gauzetan esku hartu nahiko balitz, agintaritzak berariaz erabaki beharko luke.</p>		
ESPARRUAREN PLANA		
Neurriak	2.a.01	<i>Hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun-datak kudeatzea, eta langileen euskarazko gaitasun komunikatiboa garatzeko bideak jorratzea.</i>
	2.a.02	<i>Kanpoko harremanak: Udalaren eta beste administrazio, erakunde eta elkarten arteko harremanetan gaztelania hutsezkoak murriztea eta bi hizkuntzetakoak (idatzian) edota euskara hutsezkoak (idatzian eta ahozkoan) sustatzea.</i>
	2.a.03	<i>Barruko harremanak: Udaleko atalek eta langileek beren artean dituzten harremanetan gaztelania hutsezkoak murriztea eta bi hizkuntzetakoak (idatzian) edota euskara hutsezkoak (idatzian eta ahozkoan) sustatzea.</i>
	2.a.04	<i>Programa informatikoak eta teknologia berriak euskaraz erabiltzeko bideak jorratzea, irizpide egokiak finkatuz eta horiek betetzeko baliabideak jarritz.</i>
	2.a.05	<i>Hizkuntzazko paisaia: gaztelania hutsezkoa murriztea eta bi hizkuntzetakoa edota euskara hutsezkoa sustatzea.</i>
	2.a.06	<i>Hizkuntzazko irizpideak: Udalak hainbat esparrutan garatzen dituen jardueretan euskararen erabilera bermatuko duten irizpideak lantzea, finkatzea eta betetzeko bideak jorratzea.</i>
	2.a.07	<i>Jarrerak eta sentsibilizazioa: Udaleko langileek, ordezkari politikoek eta, oro har, herritarrek Udaleko Euskara Planari buruz dituzten jarrerak aztertzea eta lantzea, euskararen normalizazioaren aldekoak izan daitezen.</i>
	2.a.08	<i>Jarraipena eta ebaluazioa: Udaleko 2008-2012rako Euskara Planaren jarraipena eta ebaluazioa egitea, alderdi sendoak eta ahulak identifikatzeko eta hurrengo plangintzaldirako oinarriak finkatzeko.</i>
	2.a.09	<i>Itzulpen-politika berri bat definitzea: alderdi nagusiak proposatzea, adostea eta garatzeko baliabideak jartzea.</i>
	2.a.10	<i>Beste administrazioetan ere (osasun-zentroan, bakezko epaitegian...) euskararen erabilera sustatzeko plan zehatzak abian jartzea.</i>

2.a.11		Datu-bilketa: hizkuntzako egoeraren diagnostikoa egitea.	
Aurreikusitako ekintzak		Lehentasuna	Hasierako urtea
